

Utopia 68/18: iruditeria berrien bila.

Jakin Jardunaldiak

Praxia: pragmatismoa eta
utopia elkartzen diren tokia


eduardo apodaka




Errealismo kapitalista

- ▶ Errazagoa da munduaren bukaera irudikatzea, kapitalismoarena baino (S. Zizek / Fredric Jameson)
- ▶ There is not alternative (t.i.n.a.)

-
- ▶ Fatalismoa: etsipena
 - ▶ Ezintasun kolektiboa
 - ▶ Sistemaren (errealitatearen) indarkeria
 - ▶ Utopia (errealitate) neoliberala







Mundu Foro Sozialak

- ▶ 2001
- ▶ Bestelako mundu bat posiblea da
- ▶ 2016
- ▶ Bestelako mundu bat beharrezkoa da. Elkarrekin lortuko dugu.
- ▶ 2018
- ▶ Eustea sortzea da, eustea eraldatzea da (*Resistir é criar, resistir é transformar*)

- ▶ Eustea, erresistitzea... sorkuntzak eta eraldaketak gauzatzea ?



Antifatalismo pragmatiko eta utopiazalea

- ▶ Utopia kolektibo iraultzaileen zentzua (efektiboki) gauzaten dituzten ekintzak eta ekintza ildoak
 - ▶ Sentiera utopikoaren zentzua
 - ▶ Iraultzaileak

- ▶ Pragmatismoa bi zentzutan
 - ▶ Nola ez ekin eraldaketari, fatalismo eta sistema honen aurka?
 - ▶ Nola ez da arduratuko ekintza eraldatzailea "*ta prágmata*" delakoaz -jendearen bizi kontu eta arazo materialez-?



- ▶ Utopia pribatuak eta distopiak nonahi...
- ▶ Utopien diseinu orohartzaile eta zehatzen kalteak ...
- ▶ Hobe, ideal utopikoak, irudimen utopikoa, irudimen utopikoz sortutako “signifikatze” berriak edo esangura alternatiboak /iraultzaileak ...
- ▶ ZEIN DA UTOPIEN FUNTZIOA?



- ▶ Irudimen utopikoek esangura (zentzua) eman behar diote ekimenari, ekintza izan dadin ...
 - ▶ ILUSIO hutsa sortzeko ez ...
 - ▶ Ekintzari zentzua emateko, ekintza pizteko ...
 - ▶ Ezkortasunetik ekintzara pasatzeko



Utopia

- ▶ Adierazpen utopikoek lagunduko digute egoeraren ezintasuna sentitzen: Hau ezin da izan! Beste(lako)rik behar dugu!
- ▶ Baina, utopia, zentzurik emateko ahalegina, ariketa, eta **sentiera** (berezia, kritikoa) bada ere, “bestelakoaren guraria” sortzen laguntzen badute ere ekintza bihurtzeko zehaztu behar dira
 - ▶ Gurari horiek gauzatzeko praktika-ildoak zehaztu behar dira




Esangura utopikoak gauzatzea


- ▶ Alternatiba irudikatzeko eta gauzatzeko ahalmen praktikoa: jokatzeko bat... praxi bat ...
 - ▶ Abiapuntu pragmatikoa
 - ▶ Egoera material, sozial eta sinboliko jakinetan
 - ▶ Ez gerorako edo urrutiko ezertarako



Utopia egikaritu



Utopia egikaritu



Esangura utopikoak gauzatzea

- ▶ Beraz, (irudimenezko) esangura/gurari utopikoak praktikan gauzatu ahal izateko: zeinetan egikarituko ditugu zehaztu ...
 - ▶ NOLA (egiten dugu/da?)
 - ▶ (lehendabiziko urratsa)
- ▶ Ideia: hipotesia izatetik lan hipotesia izatera



(Lan) Hipotesia

- ▶ Egoera, gertakari edo arazo bati buruzko ikerketan eta esplorazio jardunean ekintzak gidatzen dituen ideia, susmoa, irudipena ...
- ▶ Egiaztatu behar den azalpena eta konponbidea
- ▶ Gauzatu behar den proiektua, xedea



Adibidez: A. Badiouren hipotesi komunista

- ▶ “Hipotesi bat (...) ez da adimenaren suposizio fantasiatsu bat, ez da irudimenaren asmazio sinesgarri edo sinestezin bat. Ez. Nik esperimentu gisa ulertzen dut hipotesia, pentsamenduaren eskema orokor gisa, esperientzia konkretuak sortu ditzakeena eta horrela, ezarian gorpuztu eta egiaztatu ahal dena (...) Hipotesi komunistak ideiak, alegia ideia komunistak, ematen digun eskema baten **posibilitatea eta esperimentazioa** ekartzen dizkigu...”
-



hipotesi komunista: posibilitatea zehazte bidean

- ▶ Ekoizpen prozesua des-pribatizatu
- ▶ Estatura desagerrarazi
- ▶ Lana batu bere polimorfismoan

- ▶ Baina... “Komunistek oraingo egoeran irudikatu daitezkeen era politikoak zehaztu behar dituzte. Hurrengo urratsaren irudikapen sinesgarririk lortu ezean, edozein mugimendu iraultzaile kale itsuan sartzen da, ez du irtenbiderik ...”

- ▶ Ez... etorkizuneko paradisuaren margolan gartsuak



Hipotesi pragmatikoa

- ▶ ideia utopikoak>>
- ▶ irudimenezko esangura gauzatzeko bidea>>
- ▶ lan hipotesi pragmatikoa: egoera jakinetan konkretatu, praktikak zehaztu (ekintza-ildoak)>>
- ▶ efektuak aztertu: balio-neurgailua: ideia utopikoa
- ▶ pragmatismo iraultzailea (sen edo jakintza praktikoa hipotetikoa)





- ▶ **Boterearen pragmatismoa “errealista” edo dogmatikoa**
 - ▶ joko arauak onartu eta horiek erabiliz jardun, edo maltzurki jardun ...itzulita: egin daitekeenaz beste ezin da egin, sistemak determinatzen duenez aparte ezer ere ez ... posiblea bainoago, derrigorrezkoa
- ▶ **Beste posibleen pragmatismoa (Isabelle Stengers)**
 - ▶ Egin daitekeena ez da inoiz ekintza ildo bakarra: zer egin eta nola egin daitekeen irudikatu, sortu, sentitu eta gauzatu..
Aukerak zabaltzeko ekimenak ...



Pragmatismo eraldatzailea

- ▶ I. Stengers eta Didier Bebaise... W. James-en bidetik... anti-determinista, enpirista erradikala, materialista pluribertso batean... Mundu irekiak, sortzekoak, egitekoak... Etengabeko ikerketa...



James-en pragmatismoaren ekarpen zenbait

- ▶ Anti-determinismoa eta anti-idealismoa
- ▶ Ezagutza (espekulazio) hipotetikoa: posibleak ireki
- ▶ Ideia (hipotetiko)arekiko konpromisoa: fedea
- ▶ Ideiarekiko konpromiso pragmatikoa: fedea egiaztatu
 - ▶ Lehendabiziko ekintza askea, askatasunean sinestea
- ▶ Nahikoa ote? Egiaztapena: espekulaziotik eraldaketa materialera ... egia da efektu positiboak dituen sinesmena
- ▶ –hau da, ideia utopiko-iraultzailea egia da hura gauzatzeko ekintzarik egiten asmatzen badugu eta gauzatu dugun neurrian edo aldean



Adibide bat: nor da pragmatikoa alardeetan?

▶ 2017ko Irungo Alardea

- ▶ I. Urkullu: “Ikusiko duzu non egongo naizen. Egon behar dudan lekuan egongo naiz”
- ▶ M. Lezertua: oso garrantzitsua da ordezkari politikoek “esplizituki aitortzea zer nolako ekarpena egiten duten urtero Irungo kaleetan berdintasunezko alardea antolatu eta ospatzen duten gizon-emakumeek”
- ▶ Eta alarde parekidea urtero-urtero egikaritzen eta egiaztatzen dituztenak?



Pragmatismo iraultzailea: labur

- ▶ Pragmatismo iraultzailea: ideia utopiko iraultzailea (esangura utopiko) bat lan hipotesi gisa zehaztuta, ideia hura gauzatzeke egin daitekeena egiten du (ez erabat, ez osorik, ezta betiko ere)
- ▶ Ideia ekintzetan zehaztu eta (ez gerorako programa moduan) sentieratik unean-unean ideiari eutsiz jarduten du ...
- ▶ Ideiak zentzurik eman behar dio ekintzari...
- ▶ Ekintzak ideia gauzatu behar du ...
- ▶ Hori dena egoera-egoeran zehaztutako eduki materialaren arabera ...
 - ▶ **Ez al zen hau praxi iraultzailea?**



- ▶ K. Marx
- ▶ *Filosofoek mundua era desberdinetara interpretatu besterik ez dute egin, baina kontua hura aldatzea da*
- ▶ Praxiaren esanahiaz: praxi alienatzailea versus askatzailea



Praxia: lanetik abiatu

- ▶ Lana: bizitza, existentzia, sortzeko ingurua (natura) eraldatzen duen jardun “sortzailea”
- ▶ Soziala: jendeek, harremanetan direla ekiten diote ingurua aldatzeari
- ▶ Kanpoko errealitatea eraldatuz, nork bere burua eraldatu eta garatzen du
- ▶ Propositiboa: xede edo asmoren bat betetzeko prozesua
 - ▶ *“Naturala aldatu ez ezik, aldi berean, bere xedea propioa egikaritzen du...”*



Praxi alienatzailea eta askatzailea

- ▶ Praxi alienatzailea: lanean eta produktuetan nork bere izana (asmoa, xedea, ...) ezin duenean libreki ezarri eta objektibatu, materializatu
- ▶ Produzitzeko harremanek norberaren xedek galarazi, beste zerbait produzitzera behartu eta gainera lapurtu: esplotazioa
- ▶ Kontrakoa, beraz, praxi askatzailea da: norberaren duintasuna eta duintasun komuna materializatzen dituen jardun librea



Praxi iraultzailea

- ▶ Praxi iraultzailea praxi askatzailea lortzeko lan hipotesi gisa uler liteke ... Honako eragiketen bidez gauzatuko da:
 - ▶ Sufrimendua azaldu behar: pasioei hitz egin (min, desio zehatzei...)
 - ▶ Errealitatearen (botere-erakundeen eta harreman sozialen) ulermen kritikoaz
 - ▶ Helmuga utopikorik eskaini gabe: ordena iraultzeko praktikak



Praxi iraultzailea, pragmatismo utopiazale gisa

- ▶ Bi joera galgarriri aurre egiteko...
- ▶ (Hiper)aktibismoa: edo analisi kritikoa (teoria) baztertzen duen ekintzaren fetitxismoa
- ▶ Idealismo (hutsa): ekintza eraginkorrik gabeko utopia edo teoria hutsa ... Hutsetik mundua aldatuko duen “Beste Handia”/Lege historiko hutsak...



Praxi iraultzailea

- ▶ Praxi iraultzailean uztartuko dira xedea eta efektuak:
 - ▶ ideia utopikoak lan hipotesi gisa eta ekintza efektiboak
 - ▶ Bestela
 - ▶ Efektibotasunik gabe: *Idealismo antzua* (ekintza efektiborik gabe, errealitatea ezertan iraultzen ez duena) edo *aktibismo hutsa*...
 - ▶ Ideal utopiko iraultzailerik gabe: *pragmatismo dogmatikoa*...
 - ▶ Efectuek ideia egiaztatzen duten, gauzatzen duten... *nola jakin?*
Borroka ideologikoa, diskurtsiboa, estrategikoa, etengabeko analisi eta gogoeta....



- ▶ Baina abiapuntua beti: materia soziala eta materia psikikoa xeheki aztertu, “eragintza iraultzaile efektiboaren” osaketa, mugak eta ahalmenak zehazteko ...
- ▶ Baina zein da praxi iraultzaile edo eraldatzaile batek izan behar duen “efektibotasuna”?
- ▶ Bi arazo:
 - ▶ Materia soziala eta psikikoa, nolakoa da, nola eraldatu?
 - ▶ Ulermen kritikoa, zein jakintza mota? Egiten jakitea: zer egin eta nola?



Materia (soziala)

- ▶ Praxiaren xedea materia naturala eraldatzea da. Praxi iraultzailearena materia sozialak eraldatzea...
- ▶ Materia ekintzaren baitan eraldatzen dena da, eragintzaren (aldatzeko kemenaren) muga eta aukera
 - ▶ Materia soziala kritikoki ulertzea: eraldatzeko ahalmenak ulertzea da...
- ▶ Zeri deitu materia soziala? Instituzio / instituitu historiko sozialak (aztura eta arau sistemak, kodeak, egiturak...)



Materia soziala

- ▶ Sozialaren materialtasuna gorputzen psiko-sozializaziotik eta interdependentziako harremanetatik dator
- ▶ Harreman sozialak berezkoak (naturalak) izango balira *gauzaten* dira, objektibazio-subjektibazio prozesuetan ...
- ▶ Ordena soziala gizakien ekoizpena dela ahaztea: *heteronomia*
 - ▶ Botere harremanak asmoz eta jakitez eratzeko (konstituitzeko) jardun berezia: *politika (ordena sozialaren instituitze esplizitu eta berezia)*




Materia soziala eraldatze paradigmak


	KONSTITUITZEA	INSTITUITZEA
ZER ERALDATU	Estatua/Legeak/Botere erakundeak Berariaz eraturako botere berezia: estatu aparatuak, botere ekonomikoa, mediatikoa...	Sozietatea/"gizartea"/gizakiak Ordena soziala (inkonszientea, imaginario soziala)
NON ERAGIN	Eremu politikoaren autonomia (politika)	Bizitza sozialaren beregaintasuna (dena, politikoa)
HELBURU IRAULTZAILEAK	ASKATZEA: Botere bereziak desegitea	ERALDATZEA: elkarte eta jende berriak sortzea:
ESTRATEGIA	Bi urratseko estrategia	hezkuntza eta herrigintza "immanentea"
AZPI USTE NAGUSIA	Botere zentro edo lege historiko bat	Botere sare zabal eta konplexuak

Jakintzaren auzia: irudimena

- ▶ Alderdi ontologikoak
 - ▶ eskuma “dagoenaren ontologia politikoa”
 - ▶ ezkerra “irudimenaren ontologia politikoa”
- ▶ Bi irudimen:
 - ▶ Transzendentea, fantasiatsua
 - ▶ Immanentea, mundu materialean eraginik izan nahi duen ekintza-egitasmoetan sartuta, etengabe ari dena aldatzen eta moldatzen...



Jakintza: 1968ko irudimena

- ▶ *Irudimen transzendenteari buruzko erreferentziatzat hartzen badugu, hau da, aurrefabrikatutako ikusmen utopiko bat ezartzeko ahalegin moduan, orduan ondorioak izugarriak izan daitezke. Historian zehar halako ahaleginak eskuarki ekarri dute ikuspen utopiko horiek indarrez ezarriko zituen makina burokratiko erraldoi baten sorkuntza. (...) Bestalde, egoera iraultzaile batean, irudimen immanenteari (sukaldarien, erizainen, mekanikoen edo lorezainen zentzu komuna, praktikoa) botererik ez emateak ondorio berberak ekar litzakeela*
-
- 

Irudimen immanentea: material soziala eraldatzeko irudimena


- ▶ Techne: poieisis edo sorkuntzari dagokion jakintza
- ▶ Episteme: jakintza teorikoa
- ▶ Eta, egoera aldakor, konkretu eta dilematikoetan: phronesis, zuhurtzia...

- ▶ Materia eragilea eta nahimendunarekin erabili behar den irudimen immanentea
 - ▶ *neoliberalismo aldakorra eta pluridimentsionala eta polimorfikoa da... edozer bereganatzeko gai, eta etengabe berritzera eta asmatzera behartzen ditu sistemaren aurkariak...*



Metis: ekintza efektiborako jakintza

- ▶ Halako egoera baterako zuhurtzia: metis, etengabe aldatzen ari den inguru natural edo sozial batean jokatzeko trebetasun praktikoak
 - ▶ Ulermen kritiko teorikoaren osagarri
 - ▶ Jokatzeko jakite praktikoak
 - ▶ Egoeran egoerakoa
 - ▶ Xedeak, ez printzipioak
 - ▶ Praktikan bertan ikasi beharrekoa
-
- ▶ Pragmatismo eraldatzaileari dagokion senezko jakitea



Jakintza: irudimen immanentearen atrofia

- ▶ *Zentzu horretan da nola utopologiak berpizten dituen gogoan aspaldi lokartu ziren alderdiak, erabili gabe atrofiatu diren irudimen politiko, historiko eta sozialaren organoak, aspalditik landu ez ditugun praxiaren giharrak, egiteko ohiturarik gabe, ezta sublimatuta ere, ahaztu ditugun keinu iraultzaileak.*
- ▶ *Etorkizun(tasun) haren eta bestelako etorkizunen aldarrien halako berpiztea ez da programa edo praktika politiko bat, baina nekez pentsatu ahal da nola gauzatu litekeen ekintza politiko eraginkorrik edo iraunkorrik hori gabe...*
- ▶ Fredric Jameson, Utopia as Method, or the Uses of the Future



Joera utopikoak ulermen kritikoaz eta irudimenez xede egin eta gauzatu

- ▶ *Hilda dagoela ez dakien Lenin horrek irudikatzen du ez dugula proiektu utopikoei uko egiteko gogorik, ez ditugula gure egoeraren mugak onartu nahi: Lenin hilkorra zen eta okerrak egin zituen denok bezala; bada ordua, beraz, hiltzen utz diezaiozun, eta gure arazoei modu pragmatiko batean, ez ideologikoan, euts diezaiegun.*
 - ▶ *Hala ere, Leninek bizirik dirau beste zentzu batean: bizi da Alain Badiou-k emantzipazio unibertsalaren "betiereko ideia" deritzona gorpuzten duen neurrian, alegia, porrotek eta hondamendiek ezabatu ezin duten justiziaren aldeko borroka eternala gorpuztu duen neurrian.*
-

